

## **PROGRAMA ELEANITZETAN (TIL) GURE SEME-ALABEK GEHIAGO IKASTEN DUTE...**

Uste hau erabili du Nafarroako Gobernuak hainbat guraso engainatu nahian Jaun-andreok, Nafarroako Gobernuak inposizioaren eskutik TIL metodo-sasieredu-programak ezarri zituela jada 6 urte bete behar diren honetan, oraindik ez daki inork zer onura ekarri duten, ez baitira ebaluatuak izan. Publikoki ez behintzat. Eta ebaluaziorik izan badira, ez dute, nonbait, karrikaratu nahi izan, edo lazgarria izan daitekeena: ez dago emaitza onik. Joka dezagun seriotasunez: eleaniztasuna izan bada, eta D eredia da, hainbatek ikusi nahi ez badu ere.

Honek guztiak ekarri dituen ondorio bakarrak honako hauek dira:

*1.-Urteetan ikastetxeetan finkatua zegoen irakasle aunitz beraien borondatearen aurka desplazatuak izaten ari dira, beraien eskubideak urratuz eta hau Ingeles C1 maila duen jendea saritzearen helburu bakarrarekin ( C1 duenak lehentasuna du zenbait eskoletan)*

*2.-Nafarroako hainbat zonaldeetan herri eskolak ixtea, haurrak TILera edo beren eskoletan jarri nahi ez duten D eredia doazelako (euskaraz irakatsi baino lehen eskola txikiak itxi, eskola handiak TILen ireki; horrelakoetarako aitzindari beti Nafarroako Gobernu!).*

*3.-Sasiakreditazioen kutxa ireki dute, beraien behar eta nahien arabera irakasle gehiago edo gutxiago baimentzen dituen, inoren kontrolik gabe.*

3 emaitza txar, 3 arrazoi TIL pikutara bidaltzeko . Eta bat ere onik oraindik.

STEE-EILASen eleaniztasunaren aldekoak gara, beti ere euskaratik hasten den heinean. Are gehiago, D eredian 3 ele irakasten direnez jada, dagoena hobetzea baino ez da, irakasleak beharrei erantzuteko prestatuz.

Euskarari (Vascuence legearen 25. urteurrena) eta euskara irakasleei (A eredian euskara irakasleei materialez eta metodologiaz galdetu!) horrenbeste errespetu zor zaion honetan, krisi garaian Euskarabidea, Zubiarte, EIBZ eta orokorrean EUSKARARI horrenbesteko astindua ematen ari zaizkion honetan, aurrekontuen tarta ingelesarentzat da, baina tarta guztia ez da gozoa. Gure ikasleekin frogak eginez darraite, guztion diruarekin, eta gurasoon hobespenarekin. Noiz arte?

Denborak jartzen omen ditu guztiak bere lekuan.

## **PROGRAMA ELEANITZ HAUEI EZ! EUSKARA OFIZIALA NAFARROA OSOAN ORAIN!**

**Aitor Laka  
STEE-EILAS sindikatua**